

# MEMORIA DE LA DIVERSIDAD

2014.07.18 - 2014.10.12

## HURRENGO ERAKUSKETA

LYNNE COHEN 2014ko urriaren 24a – 2015eko urtarrilaren 25a  
MAPFRE Fundazioa

### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



Euskera

# MEMORIA DE LA DIVERSIDAD

## [Expediente I/B]

2014ko uztailaren 18a – urriaren 12a

Komisarioa: Xabier Sáenz de Gorbea

- Rekalde Aretoak, *Memoria de la diversidad. Expediente I/B* (Aniztasunaren memoria. I/B espediente) aurkezten du, Ipiña-Bidaurrezagaren bilduma pribatutik jasotako artelanez eratutako erakusketa. Bizkaiko senar-emazte hauek aspalditik dute gorderik euskal arte garaikideko bildumarik berezietako bat, orain ikusgai izango duguna, hain zuzen, Xabier Sáenz de Gorbeak hautatutako 89 piezaz eratutako erakusketa.
- Ipiña eta Bidaurrezagaren helburua euskal artea ezagutzeko eta ulertzen saiatzea izan da, beren giza ibilbidearekin batera sortu den arte hori. Ildo horretan, ahaleginak xuhurtu gabe, etengabe arakatzeko eta hautatzeko prozesu sakonak eginez jardun dute; era guztietako espazioetan ikusgai jarritakoa ikusi dute. Neke gabe egin diote jarraipena bertako eszenari, azkenean, artelanen korpus oparoa bildu arte: 2010. urtean berrogeita hamahiru pieza utzi zituzten Vitoria-Gasteizko Artium Arte Garaikideko Euskal Zentroaren esku.
- Bildumak zoko-moko asko ditu, baita ertz ugari ere. Batetik, hasieran eskuratu zituzten artelanak daude. Eta arterik tradizionalenari lotuta dauden horiek. Edota berritzen ari den arte bizkaitarrari hurbiltzen ari direla agerian uzten duten lanak. Gero, zirkuluak zabaldu egiten dira. Lurralde guztietan aurkezten diren lanik adierazgarrienak hartu nahi dituzte barne. Egilerik garrantzitsuenek egindako marrazkiak, pinturak, eskulturak, argazkiak, bideoak eta dokumentuak jaso dira. Horien bidez, azken berrogeita hamar urteetako artean izan diren jarrerak eta ikuspegiak ulertu ahal izango ditugu. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera arte. Halako aniztasuna izanda, ibilbide desberdin ugari egin daitezke. Eta, beraz, era askotako erakusketak egin daitezke, ugariak eta desberdinak. Honako hau bat besterik ez da.

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Hamar kapitulutan antolatu da erakusketa Rekalde Aretoan, denborazko eta kontzeptuzko ordenari jarraiki. Lehenik, sarrera txiki bat dago, hasiera modura Julio Beobide eta amaiera gisa Txuspo Poyo hartzen dituena. Guztira 89 artelan daude espaziotik barreiaturik, zenbait parametroren arabera multzokatuta.

1.- **Gerra ondoko belaunaldiak (Figurazioaren eta abstrakzioaren artean)** berrogeita hamarrekota eta hirurogeiko hamarkadetako hiri xeheko giroa erakusten du, eta gerra ondoko euskal artistek hartu zituzten norabideak nabarmentzen ditu. Prozesuak figuraziotik abstrakzioa jotzen du. Misterioa eta anbiguotasunik hedakorrena dira horren aukerak.

2.- Hirurogeiko hamarkadan, **Euskal Eskolako Taldeetako Artisten** eskutik, kultura herrikoa eta elitista berpizten hasi ziren, eta prozesu horrek arte guztietan izan zuen eragina. Sorkuntza plastikoe-tan, 1965. urtean izan zuen une gorena, orduan azaldu baitziren Euskal Eskolaren mugimenduko taldeak. Talde horiek Euskal Herriko lurralde bakoitzeko sortzailerik berritzaileenak erakutsi nahi zituzten. Abiarazi zuten programaren bidez, interes gehien zuten artistak bildu nahi zituzten.

3.- Hirurogeiko hamarkada horreketan, **Neo Figurazioak** beste egile batzuei dagozkie, talde identitario eta ideologikoekin nahastu ez ziren egileei. Era horretan, sentsibilitatearen esparruak eguneratu zituzten irudikapen figuratiboaren arloan. Haien ekarpenak era askotakoak dira, eta egile bakoitzak duen banakotasuna nabarmentzen dute.

4.- **Geometriko Berriek** kapitulu garrantzitsua eratzen dute euskal artearen historian. Izan ere, geometria da sortzaile askok egindako lanaren abiaburua. Formazko araztasuna, esentzia plastikoa eta prozedurazko tratamenduko neutraltasuna lortu nahi dituzte gehienbat.

5.- **(Bestelako) Jarrera Hausnartzaileei** dagozkien jokabideak ez daude oso urruti interes geometriko garaikideetatik. Arte kontzeptualetik eratorrita daude. Egileak planifikatutako edo aurrez onartu-

tako nozio baten irudi ere bilakatu ahal dira. Arteak bere legeak izan ditzan nahi dute, artearen kodeak kontzeptuetatik sor daitezen zuzenean.

6.- **Neoespresionismoak eta Transabangoardiak** hirurogeita hamarrekota hamarkadaren bukaera eta laurogeiko hamarkadaren hasieraren artean, lanbide eta espezializazio piktorikoak eta eskultorikoak berreskuratu eta berreguneratu zituen artisten uholdeak landu zituen. Ildo horretan, pintura, tailua eta modelatua itzuli ziren, *assemblage*, berreskuratze objektual eta etengabeko aldaketa estilistikoekin harremanetan jarrita.

7.- **Geometria Ahulek** kontuan izaten dituzte hala azterketa eraikitzailea, nola marra grafikoen keinuzko adierazpenak, materia gutxi-asko lodia, eta tentsioan jarritako orban kromatikoak. Osotasun horretan, atalek oreka zailak bilatzen dituzte eta adierazteko aukera mugagabeak aurkitzen dituzte.

8.- Artearen historiako gai handienetako bat da **Erretratatzea**. Nor-tasuna urtzen denean, artista asko hasten dira beren nortasunaz galdezka. Arreta beren gorputzean jartzeaz gain, autorretratura bide-ratzen dute begirada. Keinuak, interpretazioak eta iskintxo semanti-koak egiten dizkiete genero horri.

9.- Edonon sortutako gatazka ekologikoen eta sozialen taupada ez-kutua behatzaileei aditzera ematen dieten sortzaileengan **Begirada Kezkagarriak** azaltzen dira. Ez dute unibertso idealizatua, argia eta perfektua aurkeztu nahi. Aitzitik, unibertso gizatiarrago bat ekarri nahi dute gogora, hondakinen arazoiez eta berrikuntzez beteriko bidea sortzeko beharraz hausnartu ahal izateko.

10.- **Arte Proiektualak** diziplina kanonikoak aldatu ditu, eta sortzaile asko ari dira lanean, norabide kontsekuenterik izan behar ez duten ideiek eta nozioek eramanda. Batzuek jauziak egiten dituzte, araurik onartzen ez duen xake-jokoko zaldi erotu baten gisa. Egoera, gai edo kontzeptu baten inguruko asmoak eta ikuspegiak baizik ez dituzte betetzen.